

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko martxoak 26 / III. urtea / 68. zenbakia

Zubian barna



BINGEN AMADOZ



Antzinetik datorkio gizakiari izarrei begiratzeko grina. Ezinbestekoak izan dira arrantzale eta ibiltarientzat itsasoan nahiz basamortuan, hurbilagoko erreferentzi zehatzik ez dagoen toki guztietan. Izarrek bidea erakutsi diete lurtarrei mendeetan zehar.

Erabilpen praktikoa izateaz gain izarrek bestelakorik ere sortarazten lagundu dituzte bizidunak. Olerkari, filosofo, zientzilari eta izpirituko langileek betidanik goiko argitxo horietara zuzendu dituzte begiak eta ederki jantzi dira inspirazio eta pentsakera aberatsez beheko mundu hauxe elez eta ekintzez aurrera bultzatzeko gero.

Aspaldi honetan ordea, ez dakit ez ote garen niri-nirka darabilzkigun goiko horietaz pixka bat ahantzi. Egia esan, gure hiriren gaineko gardena denik ez daiteke esan. Haizeraturiko zikinkerri guztiak hortxe pilotzen ditugu metro gutxitik gora eta zertxobait urrundu beharra dago zeruak betiko garbitasuna duela gogoratzeko. Hiriko bizimoduak gainera, ez gaitu sobera laguntzen gure arbasoek ortziarekin izandako loturari eusteko. Karrika estuen artetik puxka txikiak ikusten dizkiogu zeruari eta bidean nundik nora hartu behar ditugun ziurtatzeko aski da irakurtzen jakitea.

Halere norberaren barnekotasuna arakatu eta baita astintzeko ere baliogarri dira oraindik izarrak. Gizon-emakumeen historian zehar erantzunik gabeko galdera handiek berdin berdintsu jarraitzen dutela oroitzeko lagungarri ditugu beti ere urruneko eguzkiak. Ezin kalkulatu gabilza inguruaren handitasuna eta alde berean, orotasun horretan, tautadakan sentitzen dugun bihotzaren txikitasuna. Estaldura zoragarri bera dugun guztiok, lehen bezala orain ere elkarren kontra segitu behar izatea ez ote da mina emateko modukoa. Herririk gora abiatu eta gau ilunean sartu gara lagunak. Ondoko etxean, alde hontako zaharrek ezagutu ez duten gertaera suertatu da arestian, azken elurte-garaiean. Lapurketa bat izan da. Ebasleen hatzapparretatik ez omen da ezta gutxi ezaguna den hau bezalako txoko ezkutua libratzen. Basa-piztiak bihurtu dira gauetik goizera orain gutxi arte aita edo seme xamurrak zirenak pare parean bizi diren bere auzokideekiko eta ez dago Balkanetan iadanik inorentzako kupidarik. Jakina, ahalbidea izatekotan, zer ez lukete eginen, diru apur batengatik, besteen gainetik zertxobait gora egoteko, ondokoan odola zurrupatzeko prest dauden gure hainbat hirikidek.

Eta halere, izarrei begira, ixiltasun honetan, denontzat urruna da argia, beldurgarria hontzaren kantua eta garbia errekarren jauziaren doinua.



Remigio Mendiburu, Eduardo Txillida eta Jorge Oteiza
JUANTXO EGAÑA/AITOR BAYO

Euskal kultura zizeldurik

Eduardo Txillida, Jorge Oteiza eta Remigio Mendiburu. Euskal kulturari sakontasuna eta konplexutasuna eman dion eskulturaren hiru oinarriak. Artea ezezik bizitza ere ulertzeko hiru modu desberdin, baina hirurak euskal izakera aurkitzeko nahiak bateratuta. Hiruren lanak eta haien arteko harremana aztertu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu berri duen liburuan, Pedro Manterola margolari nafarrak.

‘Zaldu baten lorategia’ izenburupean, natura hartzen du ardatz Manterolak hiruren lanak azaltzeko, eta, finean, hirurak osagarriak direla azaldu. «Oteiza eta Txillida mendi berberera bi aldetatik igotzen diren eskultoreak dira. Mendiburuk bien kezka metafisikoei irtenbidea ematen die, eta modernotasuna iragartzen. Hirurak, baina, hartu behar dira batera euskal eskultura ulertzeko».

Gure aukerak

Leireko Mendizerratik zehar

Leireko Mendizerra dugu Pirinio aurreko lehendabizikoa, Berdugo ubidearen gainean etzanda. Oztopo erraldoi gisa agertzen da hodei eta lainoendako, eta frankotan, kaskoan gelditzen dira bilduta, ezin askatuz nonbait, iparraldean. Hor nagusi dira hariztiak. Bestaldean, hegoaldera begiratzen duen zatian, baso lehorrakoak dira nagusi, eta aldaketa kaskoan bertan antzeman daiteke.

Hala ere, ez da beti horrela izan. Fuente de los Mosquitos deritzan parajea pago ederrak altzatzen dira oraindik, jatorrizko basoaren azken aztarnak, hain segur. Hasieran, pinudia soilik harkaitzen artean eta ibarren ondorekin egongo zen, baina abeltzantzak irekitako tarreek, suteek eta nekazaritzak berak beste bideak irekiko zizkioten. Orduan nagusitu zen inguru osoan, eta egun nonnahi aurki daiteke.

ibilbide honen zati batean Erret Ardibide baten zehar mugitzen da. Bide honek Eronkari eta Bardeak lotzen zuen behialan urtero Pirinotako ibarren negua utzi eta Erriberako zelaien bila bidaia egiten zuten artzainendako. Artaldeak Las Coronasetik igarotzen ziren, eta Biotzari eta Gazteluberri bitarteko ibarra gainditu ondoren, Leireko mendizerra zeharkatu eta San Salva-



I bilbide honen zati batean Erret Ardibide baten zehar mugitzen da.

dorreko monastegira jeisten ziren. Ardibide hauetan 50 metroko derrigorrezko pasabiea zegoen, eta oraindik uda amaieran eta ekaina aldera ikus daitezke artaldeak.

Ibilbidea Biotzaritik Arangoitira bitarteko errepideetik ateratzen da, pista sortzen den lekutik, hain zuzen ere.

Hortik Landora, eta ondoren pista nagusia utzi eta iparralderuntz doan bidea hartu behar du, aipatu iturriraino. Ondoren, toki berbera itzuliko gara, eta ardidibide zehar, La Cerrada izeneko tontorreraino, Leireko mendizerraren kaskotik. Ondoren jeitsiko gara berriro errepederuntz.

ASTEKO PERTSONAIAK



Antton Maiz
Pilotaria

Antton Maiz 41 urteko pilotariak irabazi zuen pasa den igandean Eskuz Binakako Txapelketa ofizialeko txapela, Martin Alustizarekin batera, 22-20 nagusitu baitziren Titin III-Arretxeren aurka. Maizek partidu bikaina burutu zuen eta bere bostgarren txapela lortu zuen. Hasieratik, Titin-Arretxe ziren faboritoak, askotan esan baita Arretxek atzean botere handia duelako. Baina Maizen heldutasuna eta esperientzia nagusitu ziren, eta urduritasuna gainditu ondoren tantoak bere aldera lortu zituen. Epailearen erabaki batek, egia esan behar bada, iskanbilak sortu zituen, Alustizak bigarren botean pilotari eman eta ontzat hartu baitzuen. Maizek berak azaldu zuenez, «epailearen deskuidoak itsustu egin zuen finala piska bat».



Eduardo Lukin
Intsumisoi

Pasa den iazko abenduan epaitu zuten Eduardo Lukin gazte olaztiarra soldadutzari uko egiteagatik, aste batzuk aurrerago bere anai zaharrena epaitu zuten bezala. Ondoren, urtarrilean, anai gazteena epaitu zuten, eta dagoeneko hirurak Iruñeko kartzelan daude, beren etxea hutsik utzi ondoren. Gazteenak hamazortzi hilabeteko zigorra jaso zuen, baina baldintzapeko askatasuna ez onartzea erabaki zuen, eta espetxean dago. Beste bien aurka, epaileak bi urte eta lau hilabeteko zigorra ezarri zuen, nahitanahiez kartzela dakarre duen zigorra. «Gurasoak ongi daude, guk hasieratik den dena azaldu genuen, gure arrazoiak eta asmoak, eta ulertu zuten», adierazi zuen Eduardo Lukin gazteak.



Angel Mari Peñagarikano
Bertsolaria

Albizturgo bertsolaria pasa den asteazkenean Iruñeko Salestarren Aretoan izan zen bertso saioaren protagonista nagusia izan zen, aspaldi honetan hiriburuan izan den ekitaldirik borobilenetakoan. Gipuzkoako txapelduna, beste saioaren batean eragindako zenbait haserre ahaztarazteko edo, jo ta su aritu zen entzule gogotsu baten aurrean, eta bere ateraldiak txalotuenak izan ziren. Morena batekin nonbait zoraturik, bertsolari peto petoa dela erakutsi zuen Angel Mari, akaso, hasieratik esan bezala, telebista aspaldiko partez bertsolarien aurrean ez zegoen eta. Galdu ere, aukera ederra galdu zuten, halere, ETBkoek, ateraldi ederrak izan baitziren bertan. Beste baterako apuntea hartuko dute.

ERAKUSKETAK



Javier Santurtun artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean datorren apirilaren 4a arte, Lan Kide Aurrezki Kutxak Sarasate ibilbidean duen aretoan. Barakaldon jaioetako artista honen lanak ikusteko lan egunetan arratsaldean eta jai egunetan goizean joatea besterik ez dago.

Jose Javier Eslava argazkilaria erakusketa ikusgai dago Tafallako Kultur Etxearen aretoan, martxoaren 31a arte. Erakusketa herriko Kultur Patronatoak eta Higuera Argazkilarien Elkarteak antolatu dute.

Esklabutza eta Arrazakeria, historia eta gaurkotatua gaiari buruzko erakusketa zabalduko da gaur, martxoak 26, Burlatako Kultur Aretoan. Bertan, panelak, argazkiak, artisautza, bideoak, eta beste gauza batzuk ikus daitezke. Apirilaren 9a arte iraungo du.

MINTZALDIAK



'Ipar-Hego harremanak eta ingurugiroa' gaiari buruz arituko da datorren asteartean, martxoak 30, Ramon Elosegi Mugarik Gabeko taldeko biologoak. Ondoren, 'Hegoaldearen aukera energetikoak' gaiari buruzko bideoa botako dute. Mintzaldi zikloa Burlatako Kultur Aretoak antolatu du eta arratsaleko 20.00etan izanen da.

ZINEMA



'El largo invierno' izeneko pelikula eskainiko dute datorren ostegunean, apirilak 1, Tafallako Español zinemaren bertako Kultur Patronatoak antolatutik. Emanaldia bi saiotan izanen da, arratsaldeko 20.00etan bat eta gaueko 10.30etan bestea. Sarrerak 175 pezetatan salduko dituzte.

'Cuentos para una escapada' izenburuko pelikula ikusteko aukera dago gaur arratsaldeko 19.30etan Nafarroako Museoen. Pelikula hau 'Españiar zinema ezezaguna' zikloaren azkenekoa da, aste osoa iraun duena. Gaurko emanaldia haurrei zuzendutako filma laburren bilduma da.

MUSIKA



Drin-Dots musika taldearekin gaupasa izanen da gaur gauean, Korrikaren hasiera dela eta, AEKK antolatuta. Arratsaldeko 19.00etan abiatuko da Korrika Iruñetik eta gauerdian, ospakizun modura eta jai luzearekin, gaupasa izanen da Berriozarren.

AHAZTU GABE!

'CHO-OYU: Turkesaren Jainkosa', izenburupean diapositiba emanaldia eskainiko dute gaur Gregorio Ariz eta Pili Ganuzak Iruñean, Nafarroa Kirol Elkarteak antolatutik. Diapositibaz gain, gaiari buruzko azalpenak emanen dituzte. Arratsaldeko 20.00etan izanen da, Elkarteak Jarauta kalean duen aretoan.

Proiektzioak 45 minutu irauten du, eta egileek 1992ko abuztuaren 8.000 metroko mendira egin zuten espedizioa ikus daiteke. Mendizaleen talde bat elkartu eta bidaia bere kontu prestatu zuten, laguntzarik gabe, eta abuztuaren hasieran Himalaya aldera jo zuten, baimenak eskatu ondoren. Osotara, zortzi mendizale ziren, Ariz eta Ganuzaz aparte: Agustin Pagola, Alfonso Bayano, Jose Miguel Goñi, Jose Artetxe, Juan Berroiz eta Javier Bermejo.

Proiektzioan taldeak eman zituen pausoak azaltzen dira, Katmandura ailegatu, hurbiltze martxa Kumbu bailara zeharkatuz, eta Cho-Oyura bidea. Beheko kanpamendua, nola iritsi ziren, beste kanpamenduen igotzeko saiakerak, lortutakoak eta beste. Azkenean, Ganuzak, Artetxe eta Bayano iritsi ziren gailurrera, Cho-Oyu mendiko puntara.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

'Xamurki' Eguzki irrati saioa

izanen da datorren asteazkenean, guztietan bezala, Gaizka Aranguren kazetariaren eskutik. Erotismoari buruzko saio euskaldun bakarra dugu hau Nafarroan, eta asteazkenean gonbidatu desberdinak eramaten ditu, beren esperientziak eta gustuak azal dituzten. Bestalde, Korrika dela eta, gaur arratsaldean konexioak egingo ditu Eguzki irratiak, jarraipen zuzena emateko asmoz.



Bera



Finalerako txartelak banatzera

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren hirugarren eta azken kanporaketa jokatu da heldu den igandean, hilak 28, Berako frontoian, arratsaldeko 5etatik aurrera. Manolo Arozena, Bittor Elizagoien, Joxemiel Argiñarena, Aitor Telletxea, Luisito Etxeberria, Txomin Amorena eta Txomin Ezponda bertsoetan, bertan erabakiko dira Iruñeko finalera joango diren zortzi bertsolarien izenak.

Azken kanporaketa honek giro ona eta bertso saio polita izateko osagarri guztiak dauzka. Lau bertsolarik —Arozena, Telletxea Etxeberria eta Elizagoien— harreman zuzena daukate Bortzirik, lehendabiziko hirurak bertakoak izanik eta Bittor Lesakako Bertso Eskolako irakaslea delako, eta pentsatzekoa da jende anitz hurbilduko dela Berara. Halaber, iazko txapelduna eta txapeldunordea bertan aritzeak dakarren ziurtasuna ere ikuitu ona izango da askorendako.

AROZENA Faborito nagusia, **ETA** nola ez, Manolo **ELIZAGOIEN** Arozena izango da. Azken hiru urteotan txapeldun, inoiz baino saio gehiago egin ditu aurrean, eta esan daiteke Nafarroako bertsolaritzaren ordezkari bihurtu dela, Nafarroatik kanpo ere. Oso erregularra, plazagizona oso, Gaiarriren txapelarako txartel gehienak dauzka bere bertsoaren baitan. Elizagoien arraiotzara ere oso bertso-



Arozena berriro faborito nagusia da.

lari erregularra da, eta Manoloren gozotasuna falta badu ere, aurre-aurrean ariko da, lan handia egin baitu aurrean txapelketa presatzen. Kalte bakarra, biek finalean egon behar diren presioa, baina ez dirudite trantze hauetan gehiegi urduritzen diren horietakoak direnik.

Beraien atzetik ibiliko da Txomin Ezponda jatsiarra. Bertsolari oso erregularra hau ere, akaso Nafarroa Beherekoen artean bestaldeko kutsu gutxien daukana da. Finaletan ohizkoa izan ohi

da, eta aurrean makalago badabil ere, sartzeko aukera handiak dauzka. Motibazioa izango da berarendako traba nagusia. Joxemiel Argiñarena ere hortxe ibiliko da, eta Iruñeko finalerako txartela lortzeko Amaia Telletxearekin ariko da lehian. Gogoratu behar Etxarriko saioko soilik Amaiak eta Xabier Silveirak dutela finalen aritzeko aukera, baina pentsatzekoa da lehendabizikoa bakarrik joango dela, puntuazioak zuzen joaten badira, behintzat.

BEHIALAKO BERTSOLARITZAREN KUTSUA Bestee-kin batera, Luisito Etxeberria eta Aitor Olaetxea arantzarrak izango dira frontoian igandean. Biek dute elkarrekin aspaldiko bertsolaritzaren kutsua; Aitorrek, Lesakako Bertso Eskolan ikasitakoa bada ere, bertsolari iaioaren sena badu, eduki ere. Segituan kantatzen hasten den horietakoa da —ez oso ohizkoa gazteen artean—, eta kutsu herrikoia dastatzen da bere bertsoetan, batez ere ofiziotan. Lasai abestuz gero, gauza politak botatzeko gauza da, eta Manolorekin batera pipermina jar diezaiolke saioari.

Luisito Etxeberria 33 urteko gaztea ere bakarrik zenbait txokotan oraindik aurki daitekeen bertsolarien eredu da, eta txapelketa batean dagoela ahazten badu, edota bere koadrila arteko giroa gogoratzen baldin badu, barre bat baino gehiago sortaraziko du. Txomin Amorena zugarramurdiarrak ere parte hartu izan du frankotan Nafarroako Txapelketetan eta bertso saio dotorea egitera joango da Berara.

Goizean zehar trikitiak ariko dira Beran, eta gogoratu behar gaur ere, ostirala, Kultur Etxean paratu duten bertsolaritzari buruzko erakusketa ikusteko parada izango dela, arratsaldeko 4.30etatik 6ak bitarte. Bertan, panelen bidez, bat-bateko kantarien historia azaltzen da, eta aste osoan zehar irekita izan da goiz eta arratsaldean, ikastetxe eta publikoerendako.

TUTERAko Radio Gladys emisoran martxan jarri du berriro bertako gazte talde batek, 'Quetzal' taldearen ingurukoa. Emisora irekitzeko baimena udalari eskatu zioten, baina bertan esan zieten urtebete barru edo zerbait egin zitekeela, ez lehenago. Hori dela eta Batzarre udal taldeari Radio Gladys emisoran berriro erabiltzeko baimena eskatu zieten eta hau onetsia eman. Saioak goizeko 7etatik gaueko 10etara aditu daitezke, eta gazteek azaltzen dutenez, jende guztiari dago irekita. «Garbi izan behar dute ezin dela politikaz aritu».

AEZKOko Batzar Orokorra ibar osorako egitasmo orokorra aurkeztu du aste honetan, 2.090 milioi pezetako aurrekontuarekin. Jasotzen diren proposamenak nekazaritza eta abeltzantzari dagozkie bereziki, baina industria edo turismoa ahaztu gabe. Bertan dagoen lur industrialaren ustiratzeko merkatuaren ikerketa proposatzen da, «50 edo 60 langiletako lantegi bat funtsezkoa izango bailitzateke ibarrendako». Turismoan Aribeko balnearioa berriro irekitzea eta hotel berri bat zabaltzea proposatzen du egitasmoak, eta bitxikeri batzuk ere agertzen dira, ohizko diru iturriei irtenbidea emateko: igelak hazitzeko egitasmoa; orein haragiaren komertzializazioa, edo landare aromadunak.



Lekunberri

Larraungo Elkarteak lanpostu baterako deialdia salatu du


P.U. / IRUÑEA

Larraungo Elkarteak taldeak, ohar baten bidez, Pedro Manuel Barberia Larraungo alkateak bertako Osasun Etxerako lanpostu baterako egin duen deialdia salatu berri du. Talde honek azaldu duenez, administrari-laguntzaile batendako lanpostuaren berri komunikabideen bitartez izan zuen, eta alkateak berak, «ez Udalak», probak egin, epaimahaia osatu eta izena emana zuten lagunei deialdia egin zien, «eskaera egina zuten inguruko lagunak kanpoan utzita».

Jose Mari Aierdiren taldearen arabera, Larraungo Udalak berak ez dauka horrelako probetarako deialdia egiteko eskumena, «Osasunbideak egin beharko

baititu, bost hilabeteren barruan». Hori dela eta, Larraungo Elkarteak Osasunbidearen arduradunen iritzia eskatu zuen afera honi buruz, «Udalan ezinezkoa baitzen», eta berria «ustekabe handiz» jaso zutela azaldu du.

Lanpostu honetarako legezko bideak, beti talde honen arabera, INEMena behar du izan. Horretarako bertan eskatu behar da Lanbide Hezkuntza 1 eta Hizkuntz Politika Departamentuak eskatutako euskara maila egokia dutenen zerrenda, eta ondoren legezko probak burutu. Kontratu administratiboa izanez gero, ez litzateke hiru hilabeterako izan behin-betikoa baizik, lanpostua bete arte. Horregatik, lanpostuan interesik duenak INEMeko bulegoan izena ematea go-



Lekunberriko bista bat.

mendatu du taldeak. Larraungo Elkarteak alkatearen jarrera salatu du, «lan egiteko nahi duten jendearen artean oinarririk ga-

beko itxaropenak sortzea besterik ez baitu egiten. Bizilagunen benetako arazoak aurre egitea» eskatu dio taldeak alkateari.

IRUÑEko San Pedro etxebizitzetan arrailtzeko arazo larriak antzeman zituzten pasa den astean bertako bizilagunek, eta arazoa iaz dagoeneko salatu bazen ere, oraindik ez da deus egin. Izan ere, udala da bertako jabea, baina duela urtebete enpresa bati konponketa lanak burutzeko agindua eman bazion ere, lan horiek ez dira inoiz hasi. Bizilagunek udalari bidalitako txostenean aitzinaldean eta barrukalean dauden arrailez ohartarazi zioten eta honen, bertako teknikariek egoera aztertu eta gero, hesi metalikoak paratu diru kanpoaldean.

IRURTZUNgo zenbait bizilagunek Erga mendian eragiten ari diren kalteak salatuzko sinadura bilketari ekin diote. Azaltzen dutenez, aztermakina batek egun batzuk daramatza Aizkorbe mendira doan bidean luebakiak egiten eta horren bidez bertako bidezidorra izorratzen ari dela diote.



Zaldun baten lorategia' izeneko liburua aurkeztu berri du Pedro Manterola pintoreak. Bertan Eduardo Txillida, Jorge Oteiza eta Remigio Mendiburu euskal eskultoreen lana aztertzen

du, eta horiek euskal kulturarendako izan duten garrantzia. Bere esanetan, hiruak arras diferenteak izanik ere, «sakontasuna eta konplexutasuna eman diote euskal kulturari, esanahia».

Euskal kulturaren sakontasuna

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

EGUNKARIA.— Euskal eskulturak ospe handia eskuratu du mende honetan, eta Eduardo Txillida eta Jorge Oteiza garai honetako eskultorerik handienetakoak dira. Hala ere, bitxia ere bada arrakasta hau, Euskal Herrian ez baita izan sekulan horrelako tradizioarik, artearen inongo arlotan.

PEDRO MANTEROLA.— Mende hau oso konplexua da arte alorrean, tendentzia eta moda askotakoa baita. Guk baditugu bi artista oso ongi kontsideratuak, sarituak, baina mende honetako punta-puntako artistak izan direla esatea gehiegi esatea da. Txillida izan da Euskal Herriko artistarik sarituena, baina Zuloaga pintorea, kasu, bere garaian, beste hainbeste izan zen, hala nola 1937ko Veneziako Biurtekoaren Sari Nagusia. Mundu osoan, abangoardiaren aurrean, pintura tradizioanaren eredu nagusi bihurtu zen...

EGUNKARIA.— Baina eskulturak euskal kulturaren barruan garrantzi handiagoa izan du Zuloagaren pinturak baino. Beti lotu izan da eskultura euskal arima aurkitzeko bilaketarekin.

MANTEROLA.— Euskal eskulturak, bistan da, eta bereziki Oteizak, estetika nazionala bilatzeko ahaleginak egin ditu, nahiz eta proiektu ia ezinezkoa den. Beraz, eskultura egiteko modu nazional bateratuak bultzatuta dagoen maila handiko talde baten aurrean gaude, ezin uka. Haien go-goia izan da euskal izakera materialaren eta lan egiteko moduen bidez.

EGUNKARIA.— Eta zergatik eskulturaren?

MANTEROLA.— Materialagatik. Nere ustetan, materiala naturaren espresio oso garbia da. Horregatik gerra ondoko euskal kulturak ez ditu 'material nobleak' deritzanak erabili. Marmolak, adibidez, esanahi 'hiritarra' dauka, eta hori ez dute erabili euskal eskultoreek. Hauen materiala burdina eta egurra da, hau da, naturaren-gandik zuzenean jasotako materialak. Halaber, brontzea oso gutxi landu da, fundizioa, bitartekoa, sartzea baita. Galtzen da materialarekiko harreman zuzene-

na, erditze organikoa, alegia. Hori oso garrantzitsua da.

EGUNKARIA.— Liburua hiru eskultoreek naturarekiko duten harremanaren inguruan osatu duzu. Hau da haien arteko benetako lotura, edo horren inguruan lotuarazi dituzu?

MANTEROLA.— Beste ikuspuntuaren arabera lotu nitzakeen, baina natura bereziki interesatzen zait tradizio artistiko luzerik gabeko herriak naturaren baitan saiatzeko baitira beren esanahia bilatzen. Eta naturaren ideia hau, bere bilakaeran, historia bihurtzen da. Horregatik euskaldunen memo-

ria ilunak misteriotsu bihurtzen du, eta horrek naturarekin lotzen du. Idealizatu eta erromantizatu egiten du. Hor bilatzen dituzte eskultoreek beren izakeraren sustraiak. Tradizio erromantiko guztiak kulturatik at egin diren herrialdeetan sortzen dira, eta Alemanian adibidez ez da horrelakorik izan, hor tradizioa oso indartsua izan delako. Txillidak Euskal Herriko aspaldiko oletan bilatzen du inspirazioa, eta Mendiburuk txalaparta eta aizkolaria omentzen ditu: Non bilatu bestela? Gure kulturak gure baitako intimoenari erreparatzen

dio. Kulturaren inguruan memoria historikoa da gauzei esanahia ematen diena, eta iluntasun horrek sustrai ia erlijiosoak sortzen ditu.

EGUNKARIA.— Hortik beraz, ohiturek, mitoek eta kultura zaharrak euskal kulturaren garrantzia?

MANTEROLA.— Historia luzea ez duten kultura guzti hauen ezaugarria da, baina euskal kulturaren inon baino gehiago. Begiratu baino ez da egin behar nortasunak eta ohiturak euskal arte plastikoetan eskuratu duten garrantzia. Hemen bezalako fenomenorik ez dago. Artista hauek—Zubiaurre, Arrue, Artetaren garai batzuk—deskribatu egiten dute mundu ideal bat, industriaren garaiaurrea.

EGUNKARIA.— Hiru eskultore hauek eskulturaren beraren aurrean duten jarrera desberdina da. Oteizak uste du eskulturak bere esanahia galdu duela, eta Txilli-

darentzat, aldiz, eskultura da salbatzea merezi duen gauza bakarra. Mendiburuk, berriz, materiarekin lan egiten du, besterik gabe, eta ez dauka besteek dituzten kezka metafisikoak. Erreakzio osagarriak dira?


MANTEROLA.— Neurri batean, oso antzekoak dira. Oteizak esaten du 1958an bukatu zela eskultura, zero metafisikora heldu zenean. Hortik aurrera dena erreplikapen hutsa da. Txillidaren ikuspuntutik, ordea, eskultura lurra salbatzeko modua da: materiari materia erantzeko bidea. Lorategia eta jatorrizko paradisuaren ideia da: lurra transformatua da, jendea pozik bizi dadin. Txillidaren artean ezaugarri iraunkorra da hau: arteak usteldurik dagoen natura salba dezake. Mundua, bere ustetan, argiz eta material osatuta dago, eta argia da materia aldatzen duena. Bien arteko harremanetik sortuko da gizarte berria. Oteizak esaten du: 'mundua ezin daiteke salba, astoputza da. Guk espazio metafisikora joan behar dugu, hor gizakumea jainkoa baita'. Txillidak esaten du: 'materialak salba gaitzake'. Bi ikuspuntuak idealistak dira.

Mendiburuk, ordea, esaten du materia iragankorra dela, eta hiltzen dela, ez dagoela eternitate-rik, baina hala ere, zoriontsu izan daitekeela. Eta Heriotza dela gizakume egiten gaituena, horren kontzientzia dugulako. Horregatik itxaropentsu agertzen da errealitatearen aurrean, eta modernitatearen erakusgarria da.

EGUNKARIA.— Materialari dagokionez ere desberdintasun nabariak dira hiruen artean. Txillidaren eskultura garai desberdinetan sailkatzen da erabilitako materialaren arabera, eta Mendibururengan garrantzi handia dauka zurak. Oteizarengan, materia baino, forma, hutsunea da nagusi. Nola adieraz daitezke jarrera ezberdin hauek?

MANTEROLA.— Txillidak burdina, zura, alabastroa, hormigoia eta lurra erabili izan ditu garai ezberdinetan, eta hori da bere eskulturaren historia. Mendibururen kasuan zura da material nagusia, baina denetarik erabili izan du. Oteizak gorroto die material guztiei, materialak naturaren manifestazioak baitira. Oteizak hutsunearekin egiten du lan, eta horretarako erabiltzen duen materiala ez da, beraz, eskultura, barruan dagoena baizik. Materiala, berarentzat, eskulturaren tokia da, kanpoko estalkia. Berdin da materiala, eta kolore guztietakoak dira bere eskulturak. Abstrakzio hutsa da.

EGUNKARIA.— Baina materia-



Pedro Manterola.



Oteizaren lanetako bat.

laren erabilerak zer garrantzi dauka bakoitzengan?

MANTEROLA.— Txillidak izugarriko garrantzia ematen dio materialari. Bere ustetan, eskultura da materiaren izakera erakusteko bidea, eta bere baitan badaude indar batzuk, eta indar horiek azaltzea da artistaren betebeharrak. Natura etengabe garatzen ari da, eta artista da garapen hori erakutsi behar duena. Mendiburu, Mailoetara joan zenean, Intzako baserri galdu hartara, naturaren bila joan zen, eta orduan deskubritu zuen naturarengan ez zegoela esperantzarik, natura heriotza zela, eta hori zela egia bakarra. Txillidak materia transformatzeko duen nahi hori gauzak bere horretan onartzeko nahia bihurtzen da Mendibururengan.

EGUNKARIA.— Txillidak esaten du materialekin gauza asko egin daitezkeela, baina ezin direla denak egin, eta etika aipatzen du bidea ikusteko. Zer garrantzia dauka bere lanean etika horrek?

MANTEROLA.— Funtsezkoa.

Bere lan guztia egin daitekeenaren eta ezin denaren arteko parekotasun horren bidez azaldu daiteke. Arte garaikideak sortzen duen iragan-kortasunaren ideiak, ziztu bizian aldatzen diren gauzak... asko haserretzen du

Mendiburuk erakutsi du bidea: naturan aurkitu daitezke esanahi eta justifikazio guztiak. Natura Jaungoikoa da, eta hor bizi gara. Horregatik zikloa ixten du, eta bera da modernitatearen eredua».

Txillida. Bere ustetan, materiala zerbait da, badauka sakontasunean izakera, eta bakarrik izakera hori azalarazten duen eskultura egin daiteke. Eskultura egitea betebeharra da, beraz, naturak dituen lege moralak aurkitu ahal izateko. Eskultoreak behar du izan, beraz, Jainkoaren *alter ego* antzeko bat, laguntzaile bat, naturaren garapena bideratzeko. Horregatik aukeratzen du beti bide zailena, bere ustetan, artistak behar den bezala jokatzeko badu, artearen mirakulua sortuko baitu.

EGUNKARIA.— Txillida izan da frankotan saritua, eta Mendibururen lana ere nahiko erraz ikusi eta ulertu egiten da. Oteizarenekin, kontrakoa gertatzen da. Hala ere, jende askok ez du ulertzen artistak benetan esan nahi duena, eta arte lan asko apaingarri huts bihurtzen dira. Nola bizi du prozesu hau artistak?

MANTEROLA.— Oso zaila da lanak ulertzea, artistak berak ez duen gauza bati heltzeko ibili den bidearen muga. Gogo, sentsazio, nahi guztiak batzen dira hor, eta guzti horrek marmar sakon bat sortzen du, nahitanahiez azaleratu behar dena. Hori kan-

Oteizak gorroto ditu material guztiak, naturaren manifestazioak direlako. Hutsunearekin egiten du lan, eta erabiltzen duen materiala ez da, beraz, eskultura, barruan dagoena baizik».

pora bota behar da, eta hori da artearen sormena. Hori da artea, eta guzti hori nabarmentzen ez bada, ez da artea. Horregatik, oso zaila da beren esanahiari heltzea. Txillida materia da, eta berdin Mendiburu, eta hori beti polita da, ikusgarria baita. Oteizaren lana, ordea, metafisikoa da, eta askoz zailagoa konprenitzeko. Gainera, Oteizari esaten badiozu bere lana gustatzen zaizula, ostikada emango dizu, gustatzeko ez dela egina esango baitizu.

EGUNKARIA.— Merezki du artearen esanahia jendeari azaltzeak, edo artistaren bizitzaren ondorio gisa ulertu behar da?

MANTEROLA.— Ni biziki kezkatzen naute joera pedagogiko guztiek. Arteak homogenizazioaren kontrakoa beharko luke izan. Lotsagarria da erakundeek balio gehiago ematea balio ez duten gauzei oso onak direnei baino. Jendeari aurrean lan onak jartzen badizkiozu, jendeak ikasiko du, ikasketak eta esanahiak azaldu gabe. Baina zaborra jartzen baduzu, jendea lehen baino pittin bat inozoagoa izango da. Hori da erantzukizuna, kalitatea bilatzea artea eskeintzerakoan.

EGUNKARIA.— Oteizaren nahia da, hain zuzen hori, artearen bidez hezitzea, baina badirudi horrek ez duela erantzunik izan artistaren aldetik.

MANTEROLA.— Oteizak beti bilatu du hezkuntza artearen bidez,

baina ez artearen mesederako, ez artearekin gozatzeko, pertsona hobeak izateko baizik. Berak esaten du hezkuntza estetikoaren bidez gizaki hobeak lortuko ditugula, baina ez arterako, bizitzeko baizik. Berak ez du nahi artea kalean, eta hortik Ibarrolaren erasoarekin izan zuen erreakzioa. Artea baliabide bat da hezkuntza estetiko lortzeko, ez helburua.


EGUNKARIA.— Mendibururen lanaz hitz egiterakoan, irtenbide modernoena dela diozu. Oteiza eta Txillidaren arazo metafisikoen aurrean irtenbide logikoena da berarena?

MANTEROLA.— Kontuan hartu behar da, mingarria izanik ere, Txillida eta Oteizaren lanak oso atzean gelditu direla. Eskultore gazteengan ez dute aparteko eraginik izango, mintzaira eskulto-

Txillidarentzat eskultura egitea betebeharra da, naturak dituen lege moralak aurkitu ahal izateko. Eskultoreak behar du izan, beraz, Jaungoikoaren *alter ego* antzeko zerbait».

artista hauen lanarekin?

MANTEROLA.— Haiek mundua bizitzeko modua, hau da, kultura ulertzeko hiru era ezberdinen semeak direla aldarrikatzen dute. Euskal kulturaren benetako semetzat hartzen dute euren burua, alabaina, zeharo desberdinak di-



Donostiako Miramar Jauregian dagoen Txillidaren lana.

J. GOYA

rikoaren baloreaz ari garelarik. Mendiburuk, ordea, erakutsi egin du bidea: Naturan aurki daitezke esanahi eta justifikazio guztiak, Natura Jaungoikoa da, eta hor bizi gara. Horregatik, zikloa ixten du, eta bera da modernitatearen eredua.

EGUNKARIA.— Zer irabazi edo irabaziko du euskal kulturak hiru

ra. Oteiza da euskaldunaren jatorri ilunean dagoen izpiaren gogo esentzialaren semea. Txillidak lotura handiagoa dauka euskal instrumentuekin. Mendiburu, bestalde, herriaren ohiturekin parekatu behar da, baserriarrarekin. Sakontasuna eta konplexutasun handia ematen diote euskal kulturari.



Artea zertarako da? Remigio Mendiburu.

Gazteendako Zokoa

Uda-zerzeta

Anas querquedula
Nabarra kolorekoak
Ur inguruetan
Kabi gutxi Nafarroan



Ahate urria

Ahate txiki hau uso baten tainakoa da. Arra erraz antzematen da, batez ere udaberri aldera, bere bekaina txuri eta handia dela eta. Bere lumak nabarrak dira buruan eta bularraldean, eta behelaldea txuria. Emea nabarra da oso, zenbait mota beltzekin.

Oso azkar eta arinak, talde handitan aritzen dira, eta gutxi izanez gero ez dute inolako erreparorik beste espeziekin nahasteko. Bere ohizko ingurugiroa zingira txikiak izaten dira, baina baita ere aritu daitezke urtegi edo uharka handietan. Migrazio garaian ura duen edozein inguruan aurkitu daitezke: lakuak, ibaiak, etab...

Oso bikote gutxi paratzen ditu kabiak Nafarroan, eta martxo aldera heltzen dira hona. Kabia ur ertzetan paratzen dute normalean, baina ez da arraroa laborearen artean ere aurkitzea. Insektu, bikoak, hostoak, kunkunak, igelak eta txapiskolak jaten dituzte.

Uztail aldera gazteak hegan egiteko gai dira, eta abuztu aldera hegoalderuntz bere bidaiari ekiten diote, batez ere Tropikoko Afrikaruntz. Nafarroan, esan bezala, oso gutxi paratzen ditu kabiak, baina Lozako urmaelan eta Pitillaseko zingiran ikusi izan ohi dira.



Leiho baten oroitzapenak

IÑAKI ALFARO

Arraroa egiten zait baina denbora pasa ondoren ez naiz etxe hartako gauza askotaz oroitzen, ezin izango nuke bere kokapuntua esan baina ongi bai oroitzen naiz logela handian zegoen leiho horretaz. Etxe zaharretako leiho tipikoa zen, kristal bakarra, txuriz margotutako markoa eta kortina txuriak ere, eguzki asko sartzen zenean indar pixkat kentzeko. Oso bista ederra zeukan, justu aurrean parke txiki bat zeukan, parke berdea beti, zuhaitz hezituak eta futbol zelai txiki batekin. Bere ezkerrean dorre handi bat zegoen, oso handia, hogeitatu pisu zuena.

Orduak ematen nituen nik leiho horretatik begiratzen, beti baitzegoen zerbait interesgarria begiratzeko. Batzutan auzokideen arteko partiduak ikusten nituen, beste batzutan ama bat bere semeari errieta egiten, eta beste-tan txori bat bere kabia egiten.

Edozer balio zitzaidan denbora pasatzeko.

Egun batean leihoaren eskualdean zegoen neska bat ikusi nuen biluzten. Argal geratu zi-

Neska bat biluzik ikusten nuen lehen aldian zen hura eta asko hunkitu ninduen. Hortik aurrera denbora gehiago eman nuen leihoan dorre-rantz begiratzen baina neska ez zen berriro agertu.

tzaidan uste dut, han zegoen arropa kentzen. Neri hori gaizki zegoela iruditzen zitzaidan, bai-

na han geratu nintzen geldi-geldirik eta begirik kendu gabe. Neska bat biluzik ikusten nuen lehen aldian zen hura eta asko hunkitu ninduen. Hortik aurrera denbora gehiago eman nuen leihoan dorre-rantz begiratzen baina neska ez zen berriro agertu.

Gauean ikusmirak polita baino politagoak ziren, aurrean parkearen bestaldean etxe txiki batzuen argiak ikusten ziren eta hodeiak egoten ez baziren ilargia ikus nezakeen. Neri leiho hura telebista, zinema eta bestelako gauzak baino entretenigarriagoa iruditzen zitzaidan. Leihoa nire bizitzan oso gauza garrantzitsua zen, eta nik leiho horrekin hazi egin nintzela esan dezaket. Orain, denbora pasa ondoren, ez naiz gauza askotaz oroitzeko baina bai leiho zahar horretaz, hori ahaztuko ez dudana gauza da, eta leiho hartaz dauzkan oroitzapenak oso onak direla esan behar dut.



BASAJAUN

Euskal mugimendu ekologikistak luze gabe erabakiko du bere etorkizuna. Industrietako merkatu-estrategiek ekologiararen mezua eurenaganatu duten garaia hauei egokitzea da talde honen erronkarik handiena, ez bakarrik Euskal Herrian, baina mundu osoan, bere iraupena ziurtatu ahal izateko.

Duela hilabete batzuk gogoeta eta eztabaidak sakonak ireki ziren estrategia eta ezberdintasun nabari zituzten taldeen baitan (Eki, Eguzki, Bizkaiko Koordinakunde Ekologista...), eta gaur egun eztabaida guzti horiek elkartzeko bidea hartu dute. Hortik Ekotopaketak, euskal mugimendu ekologistaren egiturari buruz egingo diren jardunaldiak.

Gauza asko aldatu dira, eta duela lau urte ezinezkoa zena, errealitate itxaropentsu bihurtu daiteke gaur egun, behintzat emandako urratsengatik, benetako mugimendu ekologista sendo, bateratua, eta indartsua, bizia, oztupoak gainditu ondoren.

Horrela, larunbatean, hilak 27, jardunaldi hauen partaideak —bertara deituta daude arazo ekologikoei kezka duten guztiak, edozein taldean aritu gabe ere—, arlo ezberdinetan banatuko dira konplexutasun eta aniztasun handiak dituzten gaiak eztabaidatzeko.

Hamar sailetan banatu dira gaiak: ekosindikalismoa; zonalde hezeak eta kostaldeak; Ipar-Hegoa harremanak; hondakin toxikoak; ingurugiro hezkuntza eta legedia; lurraldearen antolamendua eta garraio azpiegiturak; nekazaritza politikak eta inguru naturalak; zaborrak eta militarismoa.

Jenero Xumekoak

Jaungoikoak eta Argiputza

Honetaz asko dakien azti batek esan zigun jaungoikoak ez direla hil, zerutan daudela, hil egin dena dela haien baitan geneukan fedea. Jaungoikorik ez balitz, nola endelegatu arrazionalki, udaberriko edertasuna, haizeak garagar pentzetan uhinak egiten dituen bitartean? Zer ote da bertzenaz kimikoki argiastiko argiputza, jaungoiko baten putza ez bada?

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Gizena
2. Herri nafarra
3. Sasaki
4. Betunak
5. Jakinen banu

	1		3		5
1		2		4	

1. Erretokiak
2. Janari
3. Herri nafarra
4. Alokairua
5. Izanak

	1		3		5
1		2		4	

1. Altzoa
2. Herri nafarra
3. Jakinen balu
4. Aintzira
5. Soldatak

	1		3		5
1		2		4	

Zaharrak berri

Esperantza txarra baino, hobe hutsa.

Uste hutsa, amets hutsa; auzietan kalte.

Oskotz

Ospitalean:

—Operatzean, zertarako ezartzen duzue zuen bisaia maskaraturik, mikrobio-endako?

—Bai, horretarako ere bai, baina lehenik, eriak ezagutu ez gaitzan.

Bizi Bizian

Euskara zerbitzuak krisiaren mehatxupean

Urte honetarako UPNk prestatu aurrekontu proiektuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuetan 105 milioiko murrizketa proposatzen du. Honek udal euskara zerbitzuen ekimenen halabeharrezko murrizketa lekarke, eta kontuan harturik 1989an sortu ziren zerbitzu hauek egindako lana, kezkatuta agertu dira langileak. Azken egunotan gertuago dirudien PSOE eta UPNren arteko akordioak murrizketek aurrera egitea eragin lezake, eta hori gerta ez dadin udaletan murrizketen kontrako mozioak aurkezteari ekin diote euskara teknikariek.

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA


1986ko abenduaren 15ean Nafarroako Parlamentuak Euskararen Legea onartu zuen. Legea garatzearen hainbat dekretu publikatu zituen Nafarroako Gobernuak, eta, horien artean, udaletan euskara bultzatzearen beharra azpimarratzen zuena. Gomendio horren gauzatzea bermatzeko 1989an udal euskara zerbitzuak sortu ziren. Nafarroako Gobernuak zerbitzuetan ariko ziren euskara teknikarien soldaten % 80 ordaintzearen ardura hartu zuen, eta udalek % 20 ordaintzearena. Bestalde, zerbitzuen ardurapean antolatuko ziren ekitaldien gastuak erdibana ordaintzea erabaki zuten Gobernuak eta udalek. Hiru urte hauetan Nafarroako Gobernuak emandako hitzari eutsi egin dio, baina aurtien krisia dela medio murrizketaren aldeko jarrera garbia hartu du.

Oraindik ere langileen soldataren % 80 ordaintzeko prest ageri da Gobernuak, baina euskara zerbitzuen ekintzak sostengatzen dituzten lau diru iturri garrantzitsuenak nabarmen murriztu nahi ditu, aurrekontu proiektuaren arabera. Euskal hizkuntza bultzatzeko kanpainetan 30 milioi pezeta gastatu zituzten euskara zerbitzuek 1992an, baina 1993rako UPNren aurrekontu proposamenen arabera soilik 25 milioi gastatu ahal izanen dituzte. Euskararen garapenerako plangintzak Udal Administrazioan 55 milioiko gastua eragin zuen iaz, eta aurtien Gobernuak 35 milioi besterik ez ditu eman nahi. Murrizketarik nabarmenena euskararen aldeko kultur ekintzak bultzatzeko egitarauetan egin dute; izan ere, 60 milioi gastatu zituzten euskara zerbitzuek, eta aurrekontu proiektuak 25 milioi aurrakusten ditu horretarako. Azkenik, euskara bultzatzeko egitarauak komunikabideetan gauzatzeko 32 milioi gastatu ziren iaz, eta UPNk aurtien 35 gastatzeko prest dago.

TEKNIKARIAK UDAL EUSKARA MURRIZKETEN KONTRA

teknikarien iriziz murrizketak euskara zerbitzuak sortu zirenetik Nafarroako Gobernuarekin batera euskararen normalizazioan ibilitako bidean atzerapausoa lirateke. Hori dela eta, esan bezala, murrizketen kontrako mozioak aurkeztu eta aurkeztuko dituzte udaletxetan. Murrizketak salatzeaz gain, aipatutako lau iturrietan beharrezkotzat jotzen dituzten diru kopuruak ematen dituzte, eta, orotara, UPNren aurrekontuek aurrakusten dutena baino 90 milioi gehiago eskatzen dituzte.

Iaz euskal hizkuntza bultzatzeko kanpainak aurrera ateratzeko diru aski izan ez bazen ere,



teknikariek diru gehiago ez dute eskatzen, baina bai ordea —gutxienez— iazko diru kopuru bera, hau da, 30 milioi pezeta. Euskara bultzatzeko plangintza Udal Administrazioan aztertzerakoan, barnetegietan aritzearen premia eta Osasunbideko langileen birziklatzearen beharra kontuan hartu behar dela azpimarratu dute, eta hori dela eta, 55 milioi eskatzen dituzte. Euskararen alde-

angileen soldataren % 80 ordaintzeko prest ageri da gobernua, baina euskara zerbitzuen ekintzak sostengatzen dituzten diru iturriak nabarmen murriztu nahi ditu.

ko kultur ekintzak bultzatzeko egitarauari lagokienez, iaz hainbat kultur ekintza diru faltagatik egiteke geratu zirela gogorarazi dute mozioan, eta 75 milioi ezinbestekoak direla diote. Azkenik, euskara bultzatzeko egitarauak komunikabideetan aurrera ateratu ahal izateko 50 milioi eskatzen dituzte sortu berri eta sortuko diren irratia eta aldizkariaren kostua handiagoa delako.

Jose Luis Mendoza: «Euskararen arloan badago zertan gastatu»

J.K.L. / IRUÑEA

Jose Luis Mendoza Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren Gestio eta Koordinatze zuzendari ohiaren ustetan, UPNren aurrekontu proiektuak «erakusten du Gobernuaren borondatea, oro har, diru murrizketa izan dela. Baina aurrekontuak Parlamentuak onartzen ditu, eta ez Gobernuak. Iaz guk pentsatzen genuena baino gehiago jaso genuen, eta aurtien ere antzeko zerbait gerta liteke».

Aurrekontuen aldaketa hori gerta dadin diruaren beharra erakustearen garrantzia azpimarratu du Mendozak. «Oposizioak zuzenketen bidez beste aurrekontu bat aurrera ateratzea posible litzateke, baina horretarako erakutsi beharko da diru hori gastatzen dela eta beharrezkoa dela, eta, noski, posible da erakustea euskararen arloan badagoela zertan gastatu». Dena den, UPN eta



Jose Luis Mendoza. JOXE LACALLE

sozialisten arteko balizko akordioak kolokan jar lezake murrizketen deuseztatzea Mendozaren ustez. «Nik ez dakit UPN eta PSOEek itun bat sinatuko duten ala ez, eta horren ondorioz gauzak nola geratu diren».

HIRU URTETAKO BALANTZEA

«Errazagoa da herriekin lan egitea Administrazioarekin baino, oztopo gutxiago izaten baitituzu euskararen alde lan egiteko», dio Mendozak. Gogoz ekin zion duela hiru urte Udala Euskara Zerbitzuen proiektua gauzatzeari. «Oso interesgarria da eta oinarritzkoa Gobernuaren lana, baina azken finean euskararen etorkizuna herrietan eta herri herri egiten da. Lehendabiziko asmoa zen teknikarien figura sortzea, erreferentzia puntua izateko herrietan». Asmo hori gauzatzeko hiru zutabetan oinarritutako plangintza eratu zuten. Udala Administrazioak euskalduntzean lan egitea, kultur ekitaldiak antolatzea batez ere haurrentzat —hau oinarritzko zutabea dela uste du Mendozak—, eta herri komunikabide euskaldunak bultzatzea. Bere ustez, aurrerapausoak eman dira hiru arloetan.

Iñaki Arrizabalagapsikologoa

Loreak zelaian, txoriak kantuan, argia eta koloreak. Udaberriaren inguruan halako irudi poetiko-topikoak agertzen dira. Jantzkerarekin batera, badirudi jendeak arina arintzen duela eta alaitasunerako prestuago dagoela. Haatik, ehunetik

hogeiri udaberria jasangaitza egiten zaiela adierazten dute ikerketek. Urteko sasoi honek sortzen dituen aldaketek galdetu diogu Iñaki Arrizabalaga sikologoari. Pasaitarra jatorriz, Burlatako Adimen Osasun Zentroan aritzen da Arrizabalaga.

«Jende askok ezin du udaberria jasan»

A. UNANUE / IRUNEA

EGUNKARIA.— Udaberriak jendea aztoratu eta nolabait berotu egiten duela esan ohi da. Esaerak ba al du funtsik? Zerk eragiten du aldaketa hori?

IÑAKI ARRIZABALAGA.— Gure esperientziak argi eta garbi adierazten digu badagoela halako aldaketa bat. Gaur bertan (astear-tean) Elizondon izan naiz eta medikuak garai hau zorarena dela aipatu dit. Zerk eragiten duen aldaketa? Urteko sasoi guztiek beren ezaugarriak dituzte. Udaberrian, esate baterako, eguna luzatzen da, argi gehiago dago, eguraldia epeltzen da... Jendeak gehiago iristen du, harreman pertsonalak zabaltzen ditu eta, jarrera positiboagoa dauka, nolabaiteko euforia.

EGUNKARIA.— Zer dela eta 'udaberriko depresioa' delakoa?

ARRIZABALAGA.— Esan dudana normalena da, baina udaberriak ez du eragin bera pertsona guztien gain. Ikerketa asko egin dira eta, horien arabera, % 30-50ek ongi hartzen dute udaberria. Beste askori, berriz, jasangaitza egiten zaie. Ehun lagunetik hogeiri depresioa eragiten die. Interpretazio aunitz daude. Batzuek diotenez, urteko sasoiak markatzen dituzte jendearen zikloak. Zikloekin funtzionatzen dugu lotarako, lanerako eta denetarako. Zikloren bat aldatzen digutenean, laneko txanda esaterako, arazoak sortzen dira. Sasoiakin berdin gertatzen da: seinale batzuk jasotzean, argi aldaketa adibidez, gorputzak beste ziklo bat jartzen du martxan. Nork bere zikloak ditu: batzuk udazkenean deprimitu egiten dira eta udaberria iristean alaitu eta beste batzuei, tristura sartzen zaie udaberriaren eta neguan animoa normal-

tzen zaie. Hori jende normalaren artean. Patologiak dituztenek ere igertzen dituzte zikloak. Hauek, kasu gehienetan, desanimoa sentitzen dute udaberriaren.

EGUNKARIA.— Zergatik erreakzionatzen dute modu ezberdinean kanpotik estimulo berberak jasotzen badituzte?


ARRIZABALAGA.— Ez dago es-

Ikerketek diotenez, % 30-50ek animo onarekin hartzen dute udaberria. Ehunetik hogeiri, berriz, depresioa eragiten die. Horiei jasangaitza egiten zaie sasoi hau.

plikaziorik, guztiz pertsonala da. Pertsonaren ezaugarrien arabera, eragin ezberdina du, kanpoko faktorea bera izan arren.

EGUNKARIA.— Udaberriko depresioa tipifikatua dago, psikologoek diagnosi gisa erabiltzen duzue?

ARRIZABALAGA.— Erabiltzen dugun esku-liburuan, DSM3n ez. Orain berritua atera dute eta hor bai azaltzen direla zikloak. Normalean ez dira etortzen udaberriagatik bakarrik. Agian arazoren bat zuten lehenagotik eta areagotzean hurbiltzen dira, ez daudelako arazoari aurre egiteko egoeran. Guk erabiltzen dugu: ez kezkatu, udaberriko depresioa da, esan dezakegu, baina ez da liburuetan agertzen. Diagnosi gisa ez erabili arren, kontuan hartzen dugu zer ziklotan gauden, patologiaren bat dutenekin bati-pat, arrisku gehiago dutelako.



OSKAR MONTERO

EGUNKARIA.— Non dago patologia eta normaltasunaren arteko muga?

ARRIZABALAGA.— Horren inguruan sekulako eztabaidak egon dira. Duela 70 urte antipsikiatria deitutako mugimendua sortu zen, muga horiek hausteko edo. Zaila da, baina nabari da pertsona batek noiz dituen benetako arazoak, oso gogorak askotan. Horiakin jokatzeko era aldatu egin da: lehen nonbait sartzen zituzten berehala. Arreta eskaintzen zaie. Zer-nolako kasuak dagozkio adimen osasuneko zentro bati? Batzuek uste dute eromenak edo eskizofreniak bakarrik daudela,

baina gure esparrua askoz ere zabalagoa da. Kasu gehien-gehienak adaptazio arazoak izaten dira. Egoera konplikatu baten ondoren, urduritasun eta egonezin sintomak agertzen dituzte. Eta drogaren menpe daudenak ere etortzen dira.

EGUNKARIA.— Drogak hartzen dituztela edo behin utzita?

ARRIZABALAGA.— Droga legalak eta ilegalak ditugu. Legalen artean alkohola eta farmakoak dira nagusi. Kasu hauetan beraien medikuak bidalita etortzen dira, arazoa gainditzeko. Desintoxicazio tratamendua egiten da lehenik, baina ez da hor buka-

tzen. Bere arazoa ulertzen saiatzen gara, inguruaz aztertuta. Gero droga ilegalak hartzen dituztenak daude. Batzuk benetan motibatuak etortzen dira, droga utzi nahi dutelako. Lehen eskaera sintomak kentzea izaten da beti, beldur handia diete, baina ondorengo lan sakona egiteko gogo gutxi erakusten dute. Hala ere, beste asko merkatuaren arabera etortzen dira. Droga lortzea oso zaila egiten zaienean, hona etortzen dira sintomak arintzeko. Uneko erantzuna ematen diegu eta desagertu egiten dira.

EGUNKARIA.— Gure aurrekoen aldean, zer moduz gabiltza burutik? Damaragun bizimoduak errazago ateratzen gaitu geure onetik?

Liburuetan diagnosi bezala ez agertu arren, kontuan hartzen dugu udaberriaren eragina. Oso inportantea da zikloak aintzat hartzea, patologia dituztenen kasuan bati-pat.

ARRIZABALAGA.— Hori ez dela gehiegi aldatu, bai ordea baliabide gehiago ditugula arazoei aurre egiteko. Lehen ez zeuden hain agerian. Baserriren batean ikusi dugu 70 urteko agurea urtetan mugitu gabe egon dena, erabat geratuta. Gaur egun erantzun gehiago ditugu. Patologia larriek berdin segitzen dute. Arazo larriak ugaltzen dira agian, estresaren eraginez edo, baina baita horiei aurre egiteko ahalmena ere.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERBA

